

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua aplikazioa bat izango da. Bertan janaria eskainiko dugu DOHAIN. Esan dudana bezala hori da beste enpresa batzuek ezberdintzen gaituena. Aplikazio honen bitartez egunero jan ezin duen jendeak jan ahal izango du. Gure aplikazioaren bitartez janaria eramango diogu abisua eman duen pertsonari, motor baten bitartez (betiere pertsona hori km1 baino urrunago aurkitzen bada). Hori baita jantoki sozialengandik desberdindu gaituena, janaria eskuetan jasoko dutelako.

Gure proposamenaren balorea kuantitatiboa izango da prezioaren (dohain izango da) eta eskaeraren azkartasunari begira, hau da, noiz helduko zaion janaria eskatu duenari. Bestalde kualitatiboa izango da, enpresaren diseinua eta bezeroaren esperientzia.

LEHIAKIDEEZ DESBERDINTZEN

Nobedadea: Gure enpresak eskaera eskuetara eramango dizu, dohain.

Prestazioak: Gure aplikazioa hobetzen, gehiago garatzen eta aukera gehiago sartuko ditugu eta eskaeren azkartasuna azkartzen saiatuko gara.

Pertsonalizazioa: Egunaren arabera janari asko egotekotan aplikazioaren bidez erabaki ahal izango duzu zer janari mota nahi duzun baina ez beti bakarrik egun horretan janari aska jaso badugu

Lana erraztea: Janaria eskaintzeaz aparte janari horren egoeraz ere arduratuko gara bezeroa lasai geratu dadin.

Diseinua: Hemen ez gara asko zentratuko gure proiektua ez duelako zerikusirik handirik modarekin eta horrelako gauzekin.

Marka: Gure proiektua berria izango da eta marka ere, baina denboraren joanean jendeak gure marka kalitatezko janariarekin erlazionatuko du.

Prezioa: DOHAIN eskainiko dugu janaria, beraz, geneak arazo barik eskatuko du.

Arriskua murriztea: Gure kasuan nutrizio enpresa batekin batuko gara eta beraiek janariaren egoera determinatuko dute bezeroei arriskuak murrizteko.

Eskuragarritasuna: Jendeak eskuetan jasoko du janaria (1km baino urrunago aurkitzen bada), garraio enpresa batekin batuko garelako janaria bezeroei eramateko.

Erabilerraztasuna: Gure kasuan janaria baino ez da, beraz, jan baino ez dugu egin behar izango.